



3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresa martxan jarri eta gero, hasieran Udaletxe, eskola eta enpresa batzuekin “kolaborazio” antzerako bat sortuko dugu, prezio ekonomikoan, haien langileentzako edo ikasleentzako psikologia zerbitzuak emanez. Hala ere merkatu masiboari zuzenduta daude gure zerbitzuak.

Gainera, Eusko Jaurlaritza edo erakunde publiko ezberdinekin aliantza bat egitea ere onuragarria ikusten dugu, hauek diru laguntzak emango dituzte eta horren bitartez aplikazioa sortzeko beharrezko teknologia garatzeko aukera izango dugu.

Aplikazioa, Software Empresarial Sageinformatika enpresarekin (edo informatikako beste enpresa) akordio bat egingo dugu non haiek aplikazioa sortzen laguntzen diguten publizitate edo diru kantitate baten truke.

Lehiakideei begiraturaz, asko ez dauzkagula uste dugu, hala ere, esperientzia gehiago edo ospea duten psikologoak edo sesio prezentzialak eskaintzen dituztenak, lehiakidetzat hartu ahal ditzakegu.

Nahiz eta enpresa txiki bat izan, gure enpresak, alde batetik, lehiakide pribatuen laguntza berdina baina merkeago eskaintzen dugu (hauek 50-60 euroren artean kobratzen baitdute orduko). Bestalde, lehiakide publikoa baino kalitate hobea eskaintzen ditugu nahiz eta presentzialak ez izan eta kantitate gutxi bat kobratzen dugun.

Gure enpresa, lau bazkidez osatzen da. Bazkideen eginkizuna izango litzateke ekonomikoki lagundu ahal izatea ideia horrek funtziona dezan. Halaber, ideiak edo proposamenak balioesten dira aplikazioa hobetu ahal izateko, irabazi gehiago egon daitezen eta bezeroak erosoago eta seguruago senti daitezen app hau erabiltzean. Laurok, bazkide izateaz gain, enpresan lan egingo dugu eta hurrengoak izango dira bakoitzak enpresan beteko dituen funtzioak: Ane Aranoa kontablea izango da, Irene giza baliabidetaz arduratuko da, Ane Melchor zuzendari ejekutiboa izango da eta Yves marketinga eta enpresaren erlazioetaz arduratuko da.